



EBAZPENA, 2020ko UZTAILAREN 9koa, LANGILEAK KUDEATZEKO ZUZENDARIARENA, ORDEZKAPENAK EGITEKO 2020ko URTARRILAREN 31n IREKI ZIREN APARTEKO ZERRENDA BATZUETAN ONARTUTAKOEN ETA KANPOAN UTZITAKOEN BEHIN-BEHINEKO ZERRENDA ARGITARA EMATEN DUENA.

Hezkuntza saileko Langileak Kudeatzeko zuzendariaren 2020ko urtarrilaren 31ko ebazpenaren bidez ordezkogaien aparteko zerrendak ireki ziren ondorengo mailetan: Bigarren Hezkuntza, Lanbide Heziketa eta Hizkuntzen Irakaskuntzak. Hori guztia Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuaren 2012ko abuztuaren 27ko aginduak 14. artikuluan eta hurrengoetan ezarritako baldintzen arabera.

Deialdi horretan ezarritakoaren arabera,

EBAZTEN DUT

Lehen.- Argitara ematea Bigarren Hezkuntza eta Lanbide Heziketa mailetan ordezkapenetako zerrenda batzuetan onartutako eta kanpoan utzitako parte-hartzaileen behin-behineko zerrenda; hori Langileak Kudeatzeko zuzendariaren 2020ko urtarrilaren 31ko ebazpenaren bidez ireki ziren. Kanpoan utzitako kasuan, kanpoan utzi izanaren arrazoiak edo arrazoiak adieraziko da/dira.

Bigarrena.- Ordezkapenetako zerrenda horiek osatzen dituzten ordezkogaiak aipatutako aginduan ezarritako irizpideen arabera ordenatzen dira eta, alfabetikoki, izen-deituren arabera, 2019-2020ko ikasturtean ordezkapenak egiteko ordezkogaiak kudeatzeko prozesuan alfabeto-ordena zehaztuko duen letra aukeratzeko zozketaren emaitzen arabera. Zozketa horren emaitza Hezkuntza Saileko Langileak Kudeatzeko zuzendariaren 2019ko otsailaren 14ko ebazpenaren bidez eman zen argitara: L letra.

Hirugarrena.- Onartutako eta kanpoan utzitako behin-behineko zerrendak kontsultatu ahal izango dira:

- www.irakasle.eus orrian / Irakaslegunea / "Administrazio-izapideak" eta "Zerrendak irekitzea" / "Zerrenda-Irekitze Berriak" – "Eskaera-aldi itxia dutenak (Prozesuaren Segimendua)" estekan klik eginez.
- www.euskadi.eus/eusko-jaurlaritza/hezkuntza-saila/ orrian / Lan-Arloak / Langileak / Hornikuntza-Irakasleak / Ordezkapenetarako izangaiak / Aparteko zerrendak irekitzea / Zerrendak irekitzea / 2020-01-31ko deialdia, eta www.irakasle.eus estekan klik eginez.

Bi kasuetako edozeinetan, alde zuzen erabilzailearen eta pasa-hitzaren klabeak sartu beharko dira. Klabe horiek izan edo gogoratu ezean, www.irakasle.eus orrian lortu ahal izango dira, "Pasa-hitza eskuratu (edo berreskuratu)" estekaren bidez.

Ondoren, eta "Kontsulta pertsonalizatua" estekan klik eginez, egindako eskaerari buruzko banakako informazioa lortu ahal izango da.

Zerrendetatik at geratu diren pertsonen kasuan, "kontsulta pertsonalizatuen" atal horretan bertan ikusi ahal izango da/dira kanpoan geratu izanaren arrazoiaren xehetasun konkretua.

Laugarrena.- Interesatuak nahi dituzten erreklamazioak jarri ahal izango dituzte behin-behineko zerrenda honen kontra, 2020ko uztailaren 10etik 16ra bitartean, biak barne.



Bosgarrena.- Egungo salbuespeneko egoera kontuan hartuta, eta osasun-segurtasuna bermatzeko ezohiko neurriak hartu behar direnez, hala nola gizarte-urruntzea lortzera bideratukoak, pertsonak elkartzea edo elkarren artean hurbiltzea dakarten jarduerak saihesteko, behin-behineko zerrenda horren aurkako erreklamazioak aurkezteko neurria hartu da, horretarako gaitutako **mezu elektronikoko** honen bidez: zerrendakirekitzeerreklamazioak@euskadi.eus

JON AGIRRE HUERGA
LANGILEAK KUDEATZEKO ZUZENDARIA

Vitoria-Gasteiz, 2020ko uztailearen 9